



## APEZTEGIBERRIKO LEHENENGO SOLAIRUKO LANAK HASI DIRA

Adinduentzako erabilera anitzeko lokala eskaintzea aurreikusten dugu Apeztegi berriko lehenengo solairuan. Ainara Mutuberria Larrayozek egin-dako proiektua onartu eta gero, Zulaga enpresari esleitu zitzaion obra eta irailaren hasieran ekin zioten egokitze-lanei.

Obra 55.004,82 eurotan esleitu zen. Udalak Agenda 21 planaren 20.000 euroko diru-laguntza jasoko du inbertsio honi aurre egiteko. Apeztegi berriko lehenengo solairua guztiz berrituko da, lurra, paretak... Bitan zatitu ahalko den gela handi bat izango du, bertan adinduek elkartu eta euren jarduerak eta ikastaroak egiteko.

Proiektuari ekin aurretik Basaburuako adinduekin aurrera eramandako prozesu parte-hartzailean herritar horien beharrak eta interesak jaso genituen eta batez ere formazio ikastaroen beharra ikusten dute. Osasun zerbitzuak eskaintzeko aukera ere izanen da, fisioterapia edota podologia zerbitzuak adibidez.

Erabilera anitzeko lokal hau adinduei zuzenduta egonen da, 60 urtetik gorako herritarrei. Aurreikuspenen arabera, azaroaren amaierarako lanak bukatuta egonen dira.

## COMIENZAN LAS OBRAS DE ACONDICIONAMIENTO EN APEZTEGIBERRI

Prevedemos ofrecer un local de usos múltiples para mayores de 60 años en la primera planta de Apeztegi berri. Después de aprobar el proyecto realizado por Ainara Mutuberria Larrayoz, se adjudicó la obra a favor de la empresa Zulaga y comenzaron con la obra a primeros de septiembre.

La adjudicación de la obra se realizó en 55.004,82 euros. El Ayuntamiento recibirá una ayuda del plan Agenda 21 que asciende a 20.000 euros para hacer frente a dicha inversión. El local contará con una gran sala que se podrá dividir en dos para realizar actividades y cursos. También se podrán ofrecer servicios de salud como por ejemplo servicios de fisioterapia o podología.

Se prevé que las obras estén finalizadas para finales de noviembre.

BASABURUKO  
UDAL BULETINA  
Erredakzioa: Ametza



www.basaburuua.eus  
udala@basaburuua.eus  
948 50 30 35

---

## **EPE LABURREAN, IBARREAN INTERNET ZERBITZUA ESKAITZEA ESPERO DA BASANET BASABURUA ELKARTEAREN BITARTEZ**

Basaburuan internet zerbitzua eskaintzeko Basanet Basaburua elkarte merkantilaren memoria eta estatutuen proiektua behin-betiko onartu zuen Udalean elkartearen mar-txan jartzeko sortutako batzordeak. Notariotzan ere eskriturak egin dira eta elkarte merkantilen erregistroan inskribatu da. Operadore gisa lan egiteko alta eman ondoren, Merkatu-en eta Lehiaren Batzorde Nazio-nalak baimendu beharko du.

Udal honek elkartearen bitartez, epe laburrean internet zerbitzua eskaintzea espero du.

## **SE ESPERA QUE BASANET BASABURUA OFREZCA SERVICIO DE INTERNET A CORTO PLAZO**

Con el objetivo de ofrecer servicio de internet en Basaburua, fue apro-bada definitivamente la memoria y el proyecto de estatutos de la socie-dad mercantil Basanet Basaburua por la comisión creada en el Ayun-tamiento para poner en marcha la sociedad. También se han redactado las escrituras en la notaria y se ha registrado la sociedad mercan-til. Después de dar de alta como operador, será la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia quien otorgue la autorización.

Este Ayuntamiento espera que a corto plazo se pueda ofrecer servi-cio de internet mediante la sociedad Basanet Basaburua.

---

## **TTIKIENAN PLAZARIK GABE GELDITU DIREN HAURRAK BESTE HAUR ESKOLETARA JOATEKO DEFIZITA FINANTZATUKO DU UDALAK**

Gogorarazi nahi dizuegu, Udalak beste haur eskoletara joaten diren umeak diruz lagunduko dituela, soilik aurrez Basaburuko Udalak sustatutako 0-3 haur eskolan izena eman eta plazarik ez badago. Ez du bere gain hartuko bertan tokia izanik, beste haur eskoletara doazen haurren defizita. Beraz, familiei bideratuko zaie, beste haur eskole-tako udalek egindako finantziazio eskaera.

## **EL AYUNTAMIENTO FINANCIARÁ EL DÉFICIT DE LAS/LOS PREES- COLARES QUE SE QUEDEN SIN PLAZAS EN TTIKIENA**

Os recordamos, que el Ayun-tamiento subvencionará a las/ los preescolares que tengan que acudir a otros centros, siempre y cuando previamente hubieran realizado la preinscripción en el centro de 0-3 promovido por este Ayuntamiento sin conseguir final-mente plaza.

---

## **UDALETXEKO BEROGAILU INSTALAZIOA ALDATUKO DA**

Udaletxeko beheko solairuan heze-tasunak agertu dira berogailu siste-man sortutako pitzaduretako jarioen ondorioz. Pitzaduren konponketa eta paretak margotzea aseguruak bere gain hartuko badu ere, iturgi-naren gomendioei jarraiki, lur azpian dagoen berogailu sistema itxi eta kanpoan instalatuko da. Horretar-ako, Mikel Alsua Aristegik aur-keztutako 2.729,76 euroko (BEZa kanpo) aurrekontua onartu da.

## **RENOVACIÓN DEL SISTEMA DE CALEFACCIÓN DEL AYUNTAMIENTO**

A consecuencia de las fugas en el sistema de calefacción, se han creado humedades en la planta baja del ayuntamiento. Aunque el seguro se haría cargo de la reparación de las grietas del sistema y de pintar las paredes, hemos optado por seguir las recomendaciones del fontanero y se cerrará el sistema de calefacción subterránea, instalando una nueva en el exterior. Para ello, se ha aprobado el presupuesto presen-tado por Mikel Alsua Aristegi que asciende a 2.729,76 euros (IVA no incluido).

---

## **UDALETXEKO LEHENENGO SOLAIRUA ALOKAIURIAN**

Basaburuko udaletxeko lehenengo solairua alokairuan jarri da. Alokai-ruaren baldintzei buruzko informa-zioa eta xehetasunak Basaburuko udal bulegoetan eskainiko dira (ordutegia: 9:30-13:30).

## **SE ALQUILA EL PRIMER PISO DEL AYUNTAMIENTO**

Se ha puesto en alquiler el primer piso del ayuntamiento de Ba-saburua. Se ofrecerá información más detallada sobre las condiciones de alquiler en las oficinas municipa-les (horario: 9:30-13:30).



## ALKATETZA EBAZPENAK:

- Basaburuako Udaleko administrari ofizialaren postua betetzeko hautatze prozesu bat egin zen. Begoña Arano Galarza izan zen ordezkape-na egiteko hautatutakoa.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuak langabezia dauden pertsonak kontratatze eskaintzen dituen diru-laguntzak aztertu eta gero, web orria garatzeko proiektua onartu da. Guztira, bost pertsona kontratatu dira ekainetik azarora bitarte udaleko lan ezberdinetarako.
- Karikolar Elektrizitatea enpresak eskolako beheko solairuko pasilloko argiztapena aldatzeko aurkeztutako 598,45 euroko (BEZa kanpo) aurrekontua onartu da. Eskolako beheko pasilloa gune hezitzailea izango da hemendik aurrera.
- 2018ko uztailaren 30etik 2018ko abuztuaren 22ra (biak barne) alkatetza esku-men guztiak Xabier Azpiroz, lehen alkateordearen esku uztea onartu da.
- Orokieta 8. poligonoko 15. lursailean dagoen etxebizitza barrutik eraberritzeko obra baimena onartu zaie Sandra Balda eta Eukén Mindegia. Eta sustatzailea aldatzea ere onartu da, Josu Baldaren izena Sandra Balda eta Eukén Mindegia izenekin ordezkatzuz.
- Igoako 9. poligonoko 10. lursailean egurtegia egikaritzeko obra baimena onartu zaio Flora Ezkurrari. Aurrekontua 2.150,00 eurokoa da.
- Itsasoko 4. poligonoko 416. lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eta etxe-aurrea eraberritzeko obra baimena onartu zaio Miguel Galarzari. Aurrekontua 32.164,00 eurokoa da.
- Erbitiko elizara igotzeko eskailera berritzeko obra baimena onartu zaio Orokieta-Erbitiko Kontzejuari.

## RESOLUCIONES DE ALCALDÍA

- Se realizó un proceso de selección para cubrir una plaza de administrativa oficial del Ayuntamiento. Begoña Arano Galarza fue la elegida para dicha sustitución.
- Después de estudiar las ayudas para la contratación de desempleados del Servicio Navarro de Empleo, se ha aprobado el proyecto para desarrollar la página web. Son cinco las personas contratadas para realizar diferentes trabajos de junio a noviembre.
- Se ha aprobado el presupuesto presentado por la empresa Karikolar Elektrizitatea para cambiar el alumbrado del pasillo de la planta baja de la escuela. El presupuesto asciende a 598,45 euros (IVA no incluido).
- Se aprueba dejar todas las competencias de alcaldía a cargo de Xabier Azpiroz, primer teniente alcalde, desde el día 30 de julio de 2018 hasta el 22 de agosto de 2018.
- Se ha aprobado la licencia de obra solicitada por Sandra Balda y Eukén Mindegia para renovar el interior de la vivienda situada en la parcela 15 del polígono 8 de Orokieta. Se aprueba modificar el nombre de promotor. Sustituyendo el nombre de Josu Balda por Sandra Balda y Eukén Mindegia.
- Se ha aprobado la licencia de obra solicitada por Flora Ezkurra, para construir una leñera en la parcela 10 del polígono 9 de Igoa.
- Se ha aprobado la licencia de obra solicitada por Miguel Galarza, para renovar el tejado y la fachada de la vivienda situada en la parcela 416 del polígono 4 de Itsaso.
- Se ha aprobado la licencia de obra solicitada por el Concejo de Orokieta-Erbiti para renovar las escaleras de la iglesia de Erbiti.



## KIROL JARDUERAK DIRUZ LAGUNDUKO DIRA

Udaleko Kirol Batzordean onartu berri dugun ordenantzari esker, 2018-2019 ikasturtean kirol jarduerak egiten dituzten herritarrak diruz lagunduko dira. Diru-laguntza hori eskatzeko beharrezkoa izanen da bertan erroldaturik egotea eta Udalarekin zorrik ez izatea, besteak beste. Talde kopuruaren arabera eta orduen arabera diru laguntzak alda daitezke.

Informa zaitetz gure udal bulegoan!

## SUBVENCIÓN PARA FOMENTAR EL DEPORTE

Gracias a la ordenanza aprobada recientemente por la Comisión de Deporte del Ayuntamiento, se ofrecerá subvención a las vecinas y vecinos que durante el curso 2018-2019 realicen actividades deportivas. Para solicitar dicha subvención será necesario cumplir con las condiciones recogidas en la ordenanza, estar empadronada/do aquí y no tener deudas con el Ayuntamiento, entre otras.

¡Infórmate en nuestra oficina!



AURKI AKTAK WEBGUNEAN  
ESKURAGARRI  
[www.basaburuua.eus](http://www.basaburuua.eus)

# ETA ZU ZER ZARA, BELARRIPREST ALA AHOBIZI?

Ekainean egin zen Aizarotzen azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte eginen den Euskaraldiaren aurkezpena. Edurne Koch Basaburuan ekimena aurrera ateratzeko lanean dabilen taldeko kide da.

## Udan etenalditxo bat egin ondoren, berriro ere buru-belarri zabiltzate, Edurne...

Bai. Irailean bildu ginen eta hemendik azarora bitarte eman-gu ditugun pausoak erabaki genituen. Imotz eta Basaburuko 20 pertsona elkartu ginen. Herriak oso sakabanaturik daude eta zaila da jendea bileretara erakartzea. Horregatik herri bakoitzean pertsona bat arduratuko da herrian ekimena zabaltzeaz, ahoz ahokoarekin. Irailean Gema Sanginesen eskutik euskaraz ahalduntzeko tailer bat ere egin zen, baina hemendik aurrera herri bakoitzak erabakiko du Euskaraldiari buruzko informazioa nola zabaldu eta izen-emateko mahaiak noiz jarri. Oihanzabal eskolan adibidez badugu aurkezpen txiki bat egiteko asmoa, bertan jende asko biltzen baita.

## Nola ikusten duzu euskararen egoera Basaburuan?

Nik uste dut erdaldunena Aizarotz dela, kanpotik etorritako jende erdaldun asko dago. Basaburuan euskaraz ezer ulertzen ez duen oso jende gutxi dago eta guk honekin pertsona horiei euskaraz egiten dietenean jarrera baikorra izan dezatela lortu nahi dugu. Belarriprest asko lortu nahi ditugu. Uste dut Ahobiziak garenok euskaraz egiten dugula, aspalditik konpromiso hori dugulako. Baina garrantzitsua da Belarriprest horien ulermen gaitasuna pixkanaka geroz eta handiagoa izatea eta konfiantza hartzen joatea. Agian, egunen batean, Ahobizi bilakatuko dira. Nik uste hor dagoela gakoa!

"BELARRIPRESTEN  
ULERMEN GAITASUNA  
GEROZ ETA HANDIAGOA  
IZATEA GARRANTZITSUA DA"

"ES IMPORTANTE QUE LAS  
PERSONAS BELARRIPREST  
CADA VEZ TENGAN MAYOR  
CAPACIDAD DE  
COMPRESIÓN"

# ¿Y TÚ QUÉ PAPEL ELEGIRÁS?

En junio se presentó en el valle la iniciativa Euskaraldia que se llevará a cabo del 23 de noviembre al 3 de diciembre. Edurne Koch es una de las organizadoras.

## Después de hacer un pequeño descanso en verano, ya habéis comenzado a trabajar, Edurne...

Así es. A principios de septiembre nos reunimos para concretar los siguientes pasos. Aquí los pueblos están muy dispersos y es difícil atraer a la gente a las reuniones. Por eso tendremos un colaborador en cada pueblo que se encargará de informar y de promover la participación.

## ¿Cómo ves la situación del euskera en Basaburua?

Pienso que el pueblo más erdaldun es Aizarotz, pero en Basaburua hay muy poca gente que no entienda nada en euskera. Y nosotros con esta iniciativa queremos conseguir que esas personas tengan una actitud positiva cuando les hablen en euskera. Queremos conseguir muchos Belarriprest. Es importante que cada vez tengan mayor capacidad de comprensión y que vayan cogiendo confianza en ellos mismos. Puede que, algún día, se conviertan en Ahobizi.

Egidazu euskaraz,  
nik ulertzen dut eta.  
Euskaraz edo erdaraz  
erantzungo dizut.  
Háblame en euskera,  
que yo te entiendo,  
independientemente de que  
yo te conteste en euskera  
o castellano.



Ulertzen  
duenari euskaraz egiten diot,  
hark erdaraz erantzun arren.  
Hablaré en euskera con las  
personas que lo entienden, aunque  
ellas me contesten en  
castellano.